

XIX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuri Aita esateko eskubidea ematen diguzu;
eraman bere betera gure bihotzetan
zeure seme-alabatzako espiritua,
hitzemana zaigun ondarea irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Erg 19, 4-8

*Janari haren indarrez,
Jaungoikoaren mendiraino ibili zen.*

Erregeen liburutik

Egun haietan, Eliasek basamortuan barrena, egun bateko bidea egin zuen. Epuru zuahitz baten azpian eseri zen, eta bere buruarentzat heriotza eskatu zuen, esanez: «Aski dut, Jauna; keniezadazu bizia, ez naiz eta nire gurasoak baino hobea».

Etzan zen epuruaren itzalean, eta loak hartu zuen.

Honetan aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki zaitetz, eta jan». Begiratu zuen eta sut-opil bat eta ontzi bat ur ikusi zituen buru ondoan. Jan zuen eta edan, eta berriro etzan egin zen. Etorri zitzaion bigarrenez Jaunaren aingerua, eta ukitu eta esan zion. «Jaiki zaitetz, eta jan; oraindik bide luzea daukazu eta».

Jaiki zen Elias, eta jan eta edan zuen; eta janari haren indarrez, berrogei egun eta berrogei gau ibili zen Horeb, Jaungoikoaren mendiraino.

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 4-5. 6-7. 8-9

**R/. Dasta ezazue eta ikus
zein samur den Jauna.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
nire ahoan beti Haren gorespina.
Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Handietsi nirekin Jauna,
ospa dezagun batean Haren izena.
Jaunaren bila nenbilen eta entzun ninduen,
beldur guztietatik atera ninduen. R/.

Begira iezaiozue alai zaitetzen,
zuen aurpegiak lotsa ez daitezen.
Dohakabe honek oihu egin zuen, eta Jaunak entzun, estualdi denetatik atera du bere eskuz. R/.

Jaunaren aingeruak txabolak ipintzen ditu

beldur diotenen inguruan, eta babesten ditu.
Dasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna,
bai dohatsu, Harengana ihes doana. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 4, 30–5, 2

*Zabiltzate maitasunean,
Kristok ere maite izan baitzintuzten.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei Senideok: Ez
atsekabetu Jaungoikoaren Espiritu Santua, Berak markatuak baitzaudete erospen egunerako. Ken
zuengandik garrazkeria, beroaldi, haserre, birao, eta iskanbilak eta beste gaiztakeria guztiak. Izan
zaitezte elkarrentzat onak eta errukitsuak, elkarri barkatuz, Jaungoikoak zuei Kristorengan
barkatu zizuen bezala.

Izan zaitezte Jaungoikoaren antzekoak, Haren seme-alaba zaretenez gero, eta zabiltzate
maitasunean, Kristok ere maite izan baitzintuzten, eta bere burua guretzak eman zuen eskaingai
eta Jaungoikoarentzako opari usaintsu bezala.

EBANJELIOA: Jn 6, 41-51

Aleluia: Jn 6, 51a

R/. Aleluia.

V/. Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia –dio Jaunak–;
ogi honetatik jaten duena betirako biziko da. R/.

Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, judutarrak Jesusentzat marmarrean ari ziren, «Ni naiz zerutik jaitsitako ogia» esan
zuelako. Honela zioten: «Hau ez al da Jesus, Joseren semea? Ez al ditugu ezagutzen guk honen
aitamak? Nola dio, bada, orain, zerutik jaitsia dela?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ari marmar zeuen artean. Ez daiteke inor Niregana etorri, bidali nauen
Aitak ez badakar. Eta Nik biztuko dut hura azken egunean. Profetetan idatzirik dago:
"Jaungoikoaren ikasle izango dira guztiak". Aitari entzun, eta Haren erakutsiak ikasten dituen,
Niregana dator. Inork ez du ikusi Aita, Jaungoikoarengandik datorrenak baizik; Horrek, bai, ikusi
du Aita. Egi-egiaz diotsuet: sinesten duenak, badu betiko bizia. Ni naiz biziaren ogia. Zuen
gurasoek basamortuan mana jan zuten eta hil egin ziren; hau da zerutik jaitsitako ogia, gizonak
horretatik jan dezan eta hil ez dadin. Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena
betirako biziko da; eta Nik emango dudana ogia neure haragia da munduaren bizirako».

Oparigaien gainekoa

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure Elizaren dohain hauek;
errukiturik, Zeuk eman baitzikiozu eskaintzeko
eta Zeuk egingo dituzu gure salbameneko sakramentu.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun sakramentuak salba gaitzala, Jauna,
eta sendo jarri zure egiaren argitan.
Jesu Kristo.